

Haur Hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen Hezkuntzako 1. zikloa

Ekintza

NATURAREN MOTXILA

Heinke Freire adituak bere Educar en verde liburuan eta blogean azaltzen duenez, "gure inguruko gaurko hurrek esparru itxietan ematen dute beren denboraren %80a. Haur gehienak sedentarioak dira eta teknologiaren mendean daude. Isolatuta, heldu bihurtuta, gehiegi babestuta, gaixo (agresibitatea, arreta-zailtasunak- arreta-falta eta hiperaktibitatea-, teknologiarekiko mendekotasuna, arazo psikomotorrak) eta natura-faltarekin (biofobia, analfabetismo ekologikoa bizi dira".

Gehiegizkotzat jo ditzakegu adierazpen horiek, baina ikerketa zientifikoak bat datoz haiekin. Gainera, irakasleok kezkatuta ikusten dugu eskola-bizitzan teknologiaren erabilera sustatzen dela, aire zabaleko jardueraren kalterako. Ohikoagoa da natura gelara ekartzea eta simulatzen saiatzea (naturaren txokoa, terrarioa...), parkera edo alboko zelaira joatea baino.

Behatzea, ezagutzea, biltzea, alderatzea, norberaren buruari galderak egitea, hipotesiak proposatzea eta beste batzuk curriculumeko helburuak dira; hortaz, argi dago gordelektutik atera behar dugula ikaskuntza, eta ikasleak benetako munduan moldatzeko hezi behar ditugula.

Zenbat ordu ematen dituzte gure ikasleek gune itxi batean? Dena ikasten al da ikasgelan eta Internet bidez? Baina zer behar dute gaur egungo neska-mutilek?

Astean behin ikastetxetik hurbileko natura-ingurune batera irtetea hezkuntza-jarduera ona izango litzateke, atzerriko hizkuntzan eta psikomotrizitatean egiten diren saioak edo askotariko tailerrak onak diren bezala.

HELBURUAK

EAEko Haur Hezkuntzarako Curriculum Dekretua Esperientzia-arloak, ingurunearen ezagutza, 2. multzoa: Naturara hurbiltzea (38. or.)

LANDUTAKO KOMPETENTZIAK

- Zientzia, teknologia eta osasun-kultura
- Ikasten ikasi
- Matematika
- Hizkuntza-komunikazioa
- Norberaren autonomia eta ekimena



JARDUERAREN GARAPENA

Lehenengo eta behin, irteera planifikatu eta antola dezakegu. Oinarrizko erreferentzia hauek kontuan hartuta, izan ditzakegun zalantza guztiak argituko zaizkigu:

- Las salidas escolares. Materiales curriculares para el periodo 3-8 años Eusko Jaurlaritz, 1994 (133. or.).
- IHITZA aldizkaria. Jarduera-proposamenak: Biodibertsitatea, Paisaia eta Ingurunea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza 1. zikloa Lehen Hezkuntza 2. eta 3. zikloa

Ondoren, "Naturaren motxila" materiala landuko da. Ikasgelatik kanpoko jarduera guztiak egiteko behar den material bakarra da. Gainera, natura ikasgelara ekartzea erraztuko du.

Haur bakoitzak motxila txiki bat behar du. Motxila horretan, hau izan beharko du:

- Paperezko eta plastikozko poltsa txikiak. Haziak, perretxikoak, pinaburuak, enbor-zatiak, adartxoak, harriak, lurra eta abar jasotzeko balio dezakete.
- Neurketa-zinta, begizta, soka eta goma. Neurtu eta lotu ditzakegu gauzak, adibidez.
- Tapa gogorreko kiribil-koaderno txikia, arkatza, margoak, borragoma eta klarionak. Margotzeko, markatzeko, idazteko eta gauzak gogoratzeko erabiliko ditugu.
- Koilara, makilatxoak, birziklatutako erretilu txikia eta lupa.
- Egunkari-orriak. Zuhaitzen hostoak, landareak eta loreak kontserbatzeko.
- Edalontzia, botila, plastiko gardeneko ontzia, iragazkia, tapoi handiak eta inbutua. Oso baliagarriak izango dira animalia txikiak, ura eta abar jasotzeko.

<http://www.elsafareig.org/safareigesp> webgunean, esperimentatzeko eta sortzeko material-zerrenda zabala aurkituko duzue.

Zeregin horiek guztiak egiteko, naturan ikusteko, entzuteko, usaintzeko, ukitzeko eta sentitzeko beharrezko lekua, denbora eta isiltasuna eskainiko diegu ikasleei.

1. Heinke Freire. EDUCAR EN VERDE bloga. Educar en verde. GRAÓ. CUADERNOS DE PEDAGOGÍA aldizkaria (egileak idatzitako artikulua).
2. Carme Cols, Pitu Fernández: <http://www.elsafareig.org/safareigesp>. Ura, Aire, Argia, Lurra
3. Crecer en familia. Graó. 27. zk. Escuelas en el bosque. <http://bit.ly/1mXOSha>

